

Diskoak

IKER BARANDIARAN



Txaparrada musikala.
Askoren artean.
Txapa irratia.
Iraupena: 116'.
10 euro.

Bergarako rockaren osasun ona bi diskotan banatuta

BERGARAKO IRRATI LIBREAK CD bikoitza kaleratu du herriko 29 talderen kanteekin. Aspaldi, herri bereko gazte asanbladak *Isiltasuna apurtzen* bilduma kaleratu zuen, fanzine eta guzti. Ildo antzekotik, Txapak gaur egungo Bergarako rockaren erradiografia egin du. Ia kantu guztiak iazko uztaileko asteburu batean zuzenean grabatu zituzten. Estiloz oso irekia da lana: bakarlariak –Aitzol Mujika, Larra, Pedre,

Garate, Azkaiter Pelox, Fer eta Pixi–, elektronika –E-Tox, Ene!–, hard eta punk rocka –Cool Panic, Morley, Turboshit, Hard Flip–, hevia –Sententzia, Olimpia Darts, Lord Witch–, hardcorea –Fly Shit, Rotten Teenagers, Supercools–, punk eta Oi! doinuak –The Street 77, Extorsion, No hay solución–, metala –Aby-Kem, Nobox– eta bestelakoak –Belceblues, Adi Holden, Emon–.

Ander Elorza - Txapa Irratia

«Herriko taldeak ezagutzera emateaz gain, Txapa irratia finantzatzen ahalegindu gara»

Nola bururatu zitzaien Bergarako musika taldeen bilduma egitea?

2008aren hasieran urtea bukatu aurretik disko bat kaleratzea erabaki genuen. Txapa Irratiak urteak darमतatza gaztetxean kontzertuak antolatu eta irratan zuzenean emititzen. Hala, hasieran pentsatu genuen orain arte pasatako taldeekin bilduma egitea. Gerora, baina, Bergaran talde ugari daudela, eta Txapa herriko irratia izanik, pentsatu genuen aproposagoa zela herrikoekin egitea.

Zein da bildumaren helburua?

Bi helburu nagusi dituela esan dezakegu: batetik, Txapa Irratia finantzatzen laguntzea. Azken finean, guk ez daukagu inongo dirulaguntzarik ezta iragarkirik ere; eta irratia jarraipena izateko ekimenak egin behar izaten ditugu.



Eta bestetik, Bergarako musika taldeak ezagutzera ematea. Guk uste dugu ekimen honen bitartez elkarri lagundu diogula; guztion mesederako da.

Diskoak soinu ona dauka. Nola grabatu dituzue kantuok?

Joan den urtean uztailearen 4an eta 5ean Bergarako musika taldeekin maratoia egin genuen. Kontzertu guztiak zuzenean emititu genituen, baina horrez gain, Aimar eta

Xartik pistatan banatu zuten. Hala, gerora, kantu bana aukeratu eta talde guztien soinu maila berdindu egin dute. Zuzenekoetik hartutakoak izateko, kantuek soinu ona dute. Modu berean, kontzertuak oso arrakastatsuak izan ziren. Talde asko eta desberdinak zirenez, jende asko batu zen gaztetxean eta oso giro ona izan zen. Are gehiago, talderik talde Txapako esatari batzuek aurkezpenak egin genituen irratsaio bat balitz moduan.

Disko bikoitz horretan Bergarako rock talde guztiak daude?

Ia-ia bai. Kontzertuetan parte hartu ez duten taldeak ez zeuden aktiboan orduan, ez ziren ohartu edo ez zeuden jotzeko moduan. 39 talde daude, estilo askotakoak. Disko bikoitza da eta talde guztien biografia eta harremanetan jartzeko modua sartu ditugu. ■